

TALDEKAKO DINAMIKAN...

1

Euskararen arnasgune den herri batean geroz eta gaztelera gehiago entzuten da eskola aurreko parkean. Nola erantzungo genioke egoera honi herri gisa?

Egoera askatzeko gakoak:

- Euskaldunak oraindik ez direnekin, euskara ikas dezaten baliabideak eta denbora (doan).
- Hitz egiten diren beste hizkuntzak ere balioan jarri era berean.
- Kulturartekotasuna balioan jartzen duten ekimenak “besarkada”
- Ezberdinen arteko harreman eta gurutzaketak bideratu, elkar ezagutzeko...
- Aisialdi jarduerak, ondo pasatzea euskaraz
- Harrera jarrera izan, zatoz euskarara, ahobizi-belarri prest... malgutasunez eta positibismoz.
- Gorputza zeharkatuko digun ekimenak landu: pertenez, identitatea... emozioak
- Komunitatetik lanketa, ez soilik eskola.
- Komunikabideek ardura hartzea (telebista, irratia, aldizkariak...) gauza erakargarriak sortu euskaraz.

Zer egin Herri hezitzaile modura erronka hauen aurrean?

- Gertatzen ari dena aztertu, ulertu eta duen garrantzia eman (ez gehiago eta ez gutxiago). Zergatik gertatzen ari da?
- Herriko eragile ezberdinek elkarrekin hausnartu - erantzun egoerari → elkarlana guraso, eskola, herrigintza, udal teknikari, hautetsiak...
- Hizkuntzaren kontzientzia - trebakuntza soziolinguistikoa → haurrentzako estrategiak landu.
- Euskara erakargarri bihurtu. Kultur transmisioarekin lotu, balore batzuei → erreferente euskaldunak sortu. Baliabideak eta gauza berriak eskaini euskaraz.
- Jasangarritasuna bermatu.
- Ekintza modura: espazio fisiko bati lotu euskara, Auzolanean egindako parke bat, jolas multzo batekin edo... eta bertan euskaraz jolastu, seinaletika bereziarekin etab.

2

Tamaina ertain-handiko herri batean azken urteetan ludoteka zerbitzuaren erabiltzaileen perfila aldatu egin da. Euskal herritik kanpoko jatorria duten familien haurren matrikula nabarmen igo da eta jatorri euskalduna duten familiek, euren haurrak aisialdi eskaintza honetan matrikulatzeari utzi diote. Zer hausnartzera eramaten gaitu egoera honek herri gisa? Nola erantzungo genioke?

Egoera askatzeko gakoak:

- Batzuk ez datoz beste batzuen erruz?? argitu

- Hausnarketa: Berez badaukagu aniztasuna kudeatzeko-lantzeko gaitasuna ?
- Nondik abiatzen gara gauzak lantzeko, guztientzako irtenbidea izan behar da, aniztasuna da irtenbidea.
- Guk “bazterrekoekin” lan egin nahi dugu, baina erdigunean jartzen gara? Haiekin batera?
- Ez da egoera isolatua izango. Lan saretua, herrian emango da horren islada.
- Gure idearioa zein da? Barrura begira... ondo komunikatu hau
- Pribilegioak zalantzan jartzeko beharra.
- Helduentzako badaude espazioak konpartitzeko? Elkar elikatu...
- Nola partekatzen da boterea herri egitura barruan? Udalaren funtzioa berreskuratzea. Ardurak nun dauden eta erantzukizuna hartu.
- Datorrenaren gaineko eskaintza → herri mailako ardura da. Politikoki agian ez zaio aurre hartu.

Zer egin herri hezitzaile modura?

- Aisialdiaren pertzepzioa - klase soziala... kontsumoa eta merkantilizazioa (mugak sortu)
- Askatasuna = kontsumoa?
- Balioak birpentsatu, zerk aberasten gaituen.

3

Herri batean, prozesu parte hartzaile baten, herritarrei zer aldatu nahi zuten galdetu zitzairen. Elkarteek, jubilatuek, auzokoek, eskolek... parte hartu zuten saioetan. Prozesua hasita plaza oinezkoentzat jartzeko ardura agertu zuten. Horretarako, larunbat batean birziklatutako gorpilak hartu, lurrez eta lorez jantzi eta gune bat sortu zuten, jolaserako marrazki batzuk ere egin zituzten. Gau batean herritar batek kotxea hartu eta gorpilen gainetik pasatu zuen dena suntsituz. Nola erantzungo genioke honi herri gisa?

Puntu beroak, zailtasunak, mugak:

- Partaidetza prozesuetan ez dago heziketa ohitura.
- Botere legitimazioa. botere harremanak
- Gatazkak konpontzeko tresna gehiago!!!

Egoera askatzeko gakoak:

- Epe motzean: plaza berriz txukundu + irakurketa
- Beste herrietako ereduak erakutsi
- Kontzientziazio prozesua, atxikimendua
- Prozesua legitimatu
- Poliki poliki aldaketa egin. Ekintza ezberdinak sustatuz.
- Herritarrek esku hartu, enpatia bilatu → ekimenak
- Garraio publikoa sustatu?

Zer egin herri hezitzaile modura erronka hauen aurrean?

- Hezkuntza 0-99 → haurretatik abiatuta
- Heziketa → norberanismoetik jabetza kolektibora.

4

Oinherri egitasmoaren baitan printzipioekin bat egiten duten askotariko proiektu, ekimen edo prozesuek dute lekua. Euskal Herrian zehar hamaika printzipio hauek oinarri hartuta lanean ari diren taldeak.

Ze ekarpen egiten du Oinherri zuen proiektuan?

- Markoa, oinarria, filosofia
- Zubiak (besteak ezagutu)
- Babesa, balioa herri aurrean (sostengua)
- Zuzeneko harremana

Zer eman:

- Marko teorikoa-politikoa
- Esperientzien trukaketa
- Aholkularitza
- Formazioa
- Interseksionalitatea
- Hausnarketa: umeak erdigunean
- Gobernantza tradizioarekin bat...
- Saretzea eta konplizitatea
- Liberatuak: eragiletza gaitasuna
- Enplazamendua herri oso bati
- Eragile ezberdinak elkartzeko ariketa.

Zeintzuk dira zuen beharrak?

- Politikarien inplikazioa
- Komunikazioa, transmisioa (barrura - kanpora)
- Sarea eratzea
- Oinherriko langilea (egituran)

Premiak:

- Bitarteko eta baliabideak inbertsioa egiteko (sendotzeko eta iraunkortasuna egiteko)
- Egitura juridikoa
- Liberatuak: Hausnarketa teorikoan sakondu eta zabaldu, prozesuak dokumentatzeko, aholkularitza eta dinamizazioa, formazioa
- Komunitarioaren aldeko eragile politikoak interpelatu
- Elkarlana beste gizarte eragileekin (m feminista, euskalgintza...)

Oinherri ekimen hauen arteko harremana egituratu beharko luke? nola?

- Herriek erabaki beharko dute nola.
- Oinherriren babesa beti izango dute.

OINHERRIREN PRINTZIOAK

Ekarpenak urdinez

- Benetako parte hartzea
- Komunitatea eta auzolana
- Euskara
- Aisia hezitzailea → **Denok hezitzaile??**
- Haurtzaroaren kultura
- Ingurumen natural eta kulturala
- Aniztasunean berdin eta parekide → **Feminismoa?**
 - Harreman pertsonala gehitu (aurrez-aurrekoa, zaintza, plazara ateratzea)
 - Nola elkartu balioak
 - Jakintzaren eraketa kolaboratiboa (elkar lotuta, ez banatuta, jakintza guztiak maila berean)
 - Haurrak zentroan → haurren partaidetza sentimendua landu komunitate izaera sendoa sortu.
 - Euskara → EHn errealitate anitz oso ezberdinak ematen dira bere baitan. Egoera bakoitzari egokitzeko estrategia ezberdinak. → hizkuntza ardatza / tokian tokiko baldintzak. Formula bakarrak ez du balio.
 - H.E.F → Ahalduntzea eman da, orain arte interesik azaldu ez duten organismoek interesa azaldu eta marko estu eta kontrolatu bat. Administrazio publikoen politikei erantzunez. Botera → botere banaketa. Ideario garbi.